



Zumaiako Udala

ZUMAIAKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA IKERTZEKO BEKA DEIALDIA

*euskar
txanpa*



Zumaiako euskararen historia soziala aztertu nahi du Zumaiako Udalak; zehazki gai horri lotutako informazioa bildu, ordenatu eta dibulgaziorako prestatzea. Osorik aztertzea lan izugarria izanik, lehen deialdi honetan **1766 eta 1966 bitarteko epea** ikertu beharko da bereziki. Ikerketa hori egiteko beka bat jarri du eta deialdi honetan zehazten dira oinarriak.

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1.1 Proiektua, azterlana eta memoria **euskaraz** egingo dira osorik.
- 1.2 Bekaren iraupena gehienez **18 hilabetekoa** izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- 1.3 Beka honen diru zenbatekoa **11.000 eurokoa** izango da.
- 1.4 Ikerketa-lanak **originala eta argitaratu gabea** izan behar du.

2. ESKATZAILEAREN BALDINTZAK

- 2.1 Beka **norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute**. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.
- 2.2 Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da **diplomaduna edo lizentziaduna izatea**. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.
- 2.3 Eskatzaileak bere **euskarako gaitasuna** frogatu beharko du **EGA** edo agiri **baliokidea** aurkeztuta.

3. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Beka eskuratzeko eskaerak agiri hauek eduki beharko ditu:

- 3.1 Beka **eskatzeko orria**, behar bezala beteta (eredua udaletxean eta www.zumaia.eus udal webgunean dago eskuragarri).



Zumaia Udala

ZUMAIAKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA IKERTZEKO BEKA DEIALDIA

euskara
txanpa

3.2 NAN agiriaren fotokopia.

3.3 Eskatzailearen **euskarako gaitasuna** frogatzen duen dokumentua: **EGA** edo agiri **baliokidearen** fotokopia. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

3.4 Eskatzailearen **curriculum vitae**a behar bezala beteta, Udalak prestatutako ereduaren arabera (eredua udaletxean eta www.zumaia.eus udal webgunean eskuragarri) eta curriculumean adierazitako **unibertsitateko tituluen eta merituetako ziurtagirien fotokopiak**. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.

3.5 **Gaiaren azalpena** eta lana nola egingo litzatekeen azaltzen duen **proiektua**, ahalik eta zehatzena (**15 orrialdekoa gehienez**), honako hauek jasotzen dituenak:

- Lanaren ikerketa esparrua kokatzea.
- Helburuak.
- Informazio iturriak (lehen mailakoak eta bigarren mailakoak, agiritegiak eta bibliografia barne), baliabideak eta lan metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.

4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa Zumaiaiko **udaletxean** aurkeztu behar da, aurrez aurre edo posta ziurtatuz (Zumaiaiko Udala - Euskara Zerbitzua, Foruen enparantza 1, 20750 Zumaia).

Eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko **epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta HILABETEZ** egongo da zabalik. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesdunari. Hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere alde zuzenetik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Gaiaren inguruko adituek osatuko dute **epaimahaia**, eta tartean izango da gutxienez Euskaltzaindiko kide bat (EHS edo Euskararen Historia Soziala sailekoa). Zumaiaiko Udaleko euskara teknikariak egingo ditu idazkari lanak.

Jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako eskatzaileak proiektuak aurkeztera deituko ditu epaimahaiak. **Puntuazioa** honela egingo da:

- Eskatzaileen **curriculum**a (**0-20 puntu**). Aintzat hartuko dira ikasketak eta ikastaroak (0-10 puntu) eta lan esperientzia (0-10): kontratupekoak, argitalpenak eta ikerketak. Bereziki baloratuko dira historia alorrean eta artxiboetan egindako lanak.
- Ikerketa **proiektuaren edukiak** (**0-15 puntu**) eta **aurkezpena** (**0-15 puntu**): gaiaren eta herriaren ezagutza, zuzentasuna, balio zientifikoa eta bideragarritasuna.

Epaimahaikide guztiek dute hitz egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea, idazkariak izan ezik. Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.



Zumaiako Udala

ZUMAIAKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA IKERTZEKO BEKA DEIALDIA

*euskara
txanpan*

Epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

Beka hau dekretu bidez esleituko du Zumaiako alkateak, eskaerak jasotzeko epea amaitu eta hilabete baino lehen, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Bekaren onuradunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean berariaz idatziz uko egiten ez badio, ulertuko da beka eta oinarrietako betebeharrak ontzat ematen dituela.

Jarraipen batzordea epaimahaikideek eta Zumaiako Udalak egoki ikusten dituen udal ordezkariak osatuko dute, eta ikerlana oinarri hauetan xedatu bezala gauzatzen dela egiaztatuko dute. Batzordean ere euskara teknikaria arituko da idazkari.

6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

6.1 Euskaltzaindiaren EHS sailak emango dion trebakuntza jasotzea.

6.2 Udal Artxiboan egin beharreko lanetan Udalak jarritako baldintzak betetzea (ordutegia, agiriaren erabilera, etab). Lan horiek egoki egiteko baliabideak jarriko dizkio Udalak.

6.3 Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena) aurkeztutako proiektuaren araberrako txosten bat egitea 6 hilean behin eta horren berri ematea jarraipen batzordean, hala eskatzen zaionean.

6.4 Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Zumaiako Udalaren baimenik gabe.

6.5 Bekaren 18 hilabeteak igaro baino lehen memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea, paperean eta formatu digitalean.

6.6 Lanak gutxienez testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du, grafikoak, argazkiak eta antzekoak kontuan izan gabe. Testua ez den elementu oro eranskin gisa txertatuko da orrialdeetan zehar edo, tokirik ez balego, lanaren bukaeran. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoak izan beharko du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienezkoak betetzeko. Aipuak edo erreferentziak EHS eredu metodologikoarekin bateragarria izateko moduan jaso beharko dira.

6.7 Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Zumaiako Udalarekin eguna eta ordua adostuta.

7. BEKA ORDAINTZEA

Beka honela ordainduko da:

- Kopuru osoaren %25, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %25, beka ematen zaionetik 6 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (6.3. oinarriaren arabera) aurkeztu eta jarraipen batzordeak ontzat eman ondoren.
- Gainerako %50, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren. Lana amaituko ez balitz, edo jarraipen batzordearen iritziz lanak nahikoa kalitaterik ez badu, oinarri hauetako 8. puntua (Itzulketak eta zigorrak) ezarriko da.



Zumaiako Udala

ZUMAIAKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA IKERTZEKO BEKA DEIALDIA



8. ITZULKETAK ETA ZIGORRAK

Bekadunak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko dizkio Udalari honako kasu hauetan:

- Azken epea bukatu baino lehen bekadunak bere borondatez saria itzultzen duenean.
- Azken epea bukatuta, eta epaimahaiari arrazoizko justifikaziorik eman gabe. bekadunak ikerlanaren amaierako memoria entregatu ez duenean,
- Amaierako memoria entregatuta, epaimahaiaren iritziz Ikerlanak nahikoa kalitate ez duenean.

Hala dagokionean, Udalak bekaduna errekerituko du saria itzul dezan, eta berandutze interesak Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean jasotakoari jarraituta kalkulatuko ditu.

9. LANEN JABETZA

Lanaren jabea **Zumaiako Udala** izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketa paperean, digitalki edo ikus-entzunezko bidez osoki edo zatika erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, egoki deritzon. Bepiere, lanaren egilea aipatu beharko du.

Sortutako materiala aurkeztu eta lau urteko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak material hori erabili ahal izango du egokien iruditzen zaiona egiteko. Egileak, orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du (bekaren eta Udalaren izenak jarriz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

10. GORABEHERAK

Zumaiako Udalak oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango ditu, eta horretarako azaroaren 18ko 38/2003 diru-laguntzen legea eta hori garatzen duen erregelamendua erabiliko du.

Oinarrien interpretazioaren eta betetzearen haritik auzitan jar daitezkeen gaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren arlokoak eta eskumenekoak izango dira.

Era berean, beka indarrik gabe utzi ahal izango du, onuradunak egin beharrekoak bete gabe lagako balitu.

11. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen dituela aitortzen du eskatzaileak.

Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Zumaiako Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek udal kudeaketan bakarrik erabili daitezken. Hala ere, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo laga ahal izango zaizkie.